


Bi hilabete baino gehiagoko (hiru Vital-en kasuan) itxarote eta erreklamazioen ondoren, Besaide-ren prestakuntza eta inplantazioak suposatutako esfortzuaren konpentsazioari buruzko informazioa helarazi digu enpresak.



Konpentsazio hau, orokorrean, 2 egunekoa izango da prestakuntza egin genuenontzat eta 1 gehiago bateratze-informatikoko igandean etorri ginenontzat.

Bateratze informatikoan zuzenki inplikaturak izan ziren zerbitzu zentralako lankideek, lanaldi bereziak jasan behar izan dituztenak, bera-riazko konpentsazioak izango dituzte, [bateratzearen haseran aipatu-takoaren haritik](#).

Konpentsazio garrantzitsu bat geratzen da oraindik gure iritziz; esfortzu berezi bat egin duten pertsonena. Esate baterako beste lankideen erreferentzi izan diren lankideen lanarena, integrazioaren ondorengo momentuetan besteontzat oinarritzko euskarri izan bait dira.

Pertsona hauen nagusiek badakite zeintzuk diren, eta kasu askotan oraindik ere ez dituzte ezta esker oneko hitzak jaso. Hemendik nagusi horiek animatu nahi ditugu zuzendaritza ildoaren bitartez kasu hauen berri ematera, aparteko esfortzu hori hutsean gera ez dadin.

- Kabinputio Gillermo, nork egingo zizkidak helburuak horrela?